

JARDUERAK

Guk gure enpresaren jarduera batzuk beste enpresa batzuen esku utzi egingo ditugu. Kasu honetan uste dugu enpresa horiek gure jarduerak ongi egingo lituzkela eta ez liokete kalterik egingo gure produktuari ezta gure enpresari. Jarduerak, hauek batzuk izango lirateke: gure produktuak bidaltzea, produktuak egitea, etab.

Bestalde, beste jarduera batzuk guk soilik egin ahal genituzke, hau da, gure enpresaren antolakuntza eta kudeaketarekin zer ikusirik dituzten jarduerak, hauek pribatuak baitira. Adibidez, gure produktuen finantziazioa, marketing-a, gure bezeroekin harremanetan jartzea, etab.

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, taldekide bakoitzak bere abilezian oinarritutako lana egingo luke. Hasteko, taldea osatzen dugun pertsonak, bakoitzak dituen gaitasunak kontuan hartuta enpresa hobetzeko gaitasuna edukiko genuke. Amy oso ondo moldatzen da diseinuak eta marrazkiak egiten, gure proiektuaren diseinua marraztuko luke; Samuel ordenagailuekin trebea denez, gure enpresaren webgunea sortuko luke; Fu Fen bezeroekin eta enpresekin komunikatzen arduratuko zen; Laura marketing estrategiak kontrolatzen dituen bezala kontrolatuko luke publizitatea. Azkenik, taldekideko partaide guztiak enpresaren antolatzaileak izango ginateke, hau da, ze gauza izango diren onak eta txarrak enpresarentzat adostuko genuke denok batera.